

VIII. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

“JOXE LEGARRETA SARIA”

Aurten VIII. aldiz antolatu du Udaleko Euskara Batzordeak bertso-paper lehiaketa. Joxe Legarreta ereñotzuar bertsozalearen omenez antolatzen da bi urtetik behin lehiaketa hau eta hiru maila bereizten dira: helduena, gazteena eta gaztetxoena.

*Helduen mailan eta gai librean **Jon Martin Etxebeste** oiartzuarra izan da aurten irabazlea “Euripean” izeneko bertso-sorta honekin:*

Doinua: Esperantzarik gabeko zerbait

1 Nor ez da noizbait geratu goxo
maitasunaren gatibu?
Baina tamalez, honek gozamen
ta arrisku ugari du.
Zeru urdinak urdin iraungo
ez duela badakigu
atzo hodeiak bihurtu ziren
sekretu baten testigu,
atzo hodeiak kixkurtu ziren
ta gaur euria ari du.

2 Esan zenidan: - Azkenaldian
guztia jartzen dut dudan,
ez dakit zer den eragilea
eta nola gertatu dan
baina badakit aldaketa bat
sortu dela orain gugan.
Ta mozketaren ondoreneko
etsipenaren tristuran
konturatu naiz oraindik ere
zenbat maitatzen zaitudan.

3 Nire bihotza erauzi duzu
hitzezko kolpe bat jota,
zapaldu eta luzaro jardun
zara hari ostikoka,
kozka egin ta zatitu duzu,
zatiak lurrera bota,
emaiozu su, ito ezazu,
ez zait batere inporta
maite ez nauzun une beretik
gajoa hilotz dago ta.

4 Pisuak pisu gehiegi dauka
kaleak egin du kale;
ez dut goserik, ez egarririk
eta ez nago logale.
Zorigaitzaren amorantea,
etsipenaren maitale.
Bularraldean hotzikara bat
oinazeen sortarazle
oraindik ere zerbait bizirik
daukadanaren seinale.

5 Oroitzapenak iltzatzen zaizkit,
bularra iltzez bete da,
oroitzen dudan, oro oroitzen
baitut zurekin batera.
Nire bihotza bete dezaken
neska bakarra zu zera
malko guztiak agortu arte
noa negar egitera
nire bihotza nahi dudalako
begietatik atera.

6 Sentitzen duen bihotz batean
mina ezin da ukatu,
min hartzen duen gorputz batean
negarra ez da pekatu.
Beste gauzarik ezin dut egin
joan zarela frogatu,
beste gauzarik ezin dut egin,
hutsa betetzen saiatu,
bakardadea musukatu ta
ausentzia besarkatu.

7 Ez ote dago lehenaldirik
eraldatzeko erarik,
ez ote dago orainaldirik
iluntasuna besterik,
ez ote dago etorkizunik
zurekin eta zu barik.
Ta bat-batean zirrara batek
gorputza zeharkatu dit
baina tristura ez dit eraman,
hor jarraitzen du oraindik.

8 Ez omen dauka zure bihotzak
biontzat adina leku,
hori, neureak egin lezake,
ezin lezake ulertu.
Zerua bezain urruti zauzkat
ta hodeiak bezain gertu,
atzo hodeiak bihurtu ziren
testigu baten sekretu
atzo hodeiak kixkurtu ziren
eta gaur ez du atertu.